



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko martxoaren 9a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da untxi-aziendaren sektoreari buruzko lanmahai bat presako izaerarekin sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernu zentralari exigitzen zaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa. Osasun Batzordeak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean eskaintzen haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanmahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak osatua, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez indargabetzen baita otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

ATARIKOA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ahalegin handia egin du, eskualde-industrialdeak eraikiz industriarako lurzorua sustatzeko. Jarduketa horien osagarria izan da udal industrialdeen garapenerako laguntza. Helburu horrekin eman zen otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

Gaur egun, industrialde urbanizatuen eskaintza nahikoa da balizko eskariari erantzuteko, nahiz eta batzuetan bat ez etorri azken ekitaldietan atzemandako beharrak eta dagoen lurzoru eskaintza. Behar berri horiek aldakorrak dira, eta mota askotakoak: lurzorua prestatzea lehendik kokatuta dauden jarduerak areagotzeko; lanak egitea, egun dauden industrialdeei zerbitzu berriak emateko; enpresen eskura jartzea lurzorua ez, baizik eta lokal txikiak, enpresa ekintzaileak hasierako fasean bertan ezartzeko, etab.

Behar berri horien ondorioz, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea ez da jada hain tresna eraginkorra enpresei kokalekuak emateko behar berriei erantzuteko.

Toki mailako industrialdeak sustatzeko laguntzak arautzeko foru lege bat egiteko arrazoia izan zen Diru-laguntzei buruzko Foru legea egin gabe zegoela garai hartan, eta lege horrek ezartzen zuela, laguntza-mota gisa, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren hobari bat. Gaur egun, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezartzen du zer araubideri lotu behar zaizkion Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen laguntzak; horrenbestez, ez da beharrezkoa lege mailako arau baten bidez arautzea toki mailako industrialdeetarako laguntzak.

Aitzitik, laguntzak lege mailakoa ez den xedapen baten bidez antolatzea egokiagoa da, aukera emanen baitu unean-unean malgutasunez ezartzeko atzemandako beharrei erantzuteko behar diren laguntza neurriak. Hori dela eta, bidezkoa da indargabetzea otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indarrean utziz Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren 100eko 95eko hobaria, 4. artikuluko c) letran araututakoa.

Artikulu bakarra. Indargabetzea otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

Indargabetzen da otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, 4. artikuluko c) letra izan ezik, zeinaren bidez Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren 100eko 95eko

hobaria ezartzen baita, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sortzeko helburuz toki entitatei egindako lur-eskualdatzeetan, baita toki entitateek bertan kokatzen diren enpresei egiten dizkietenetan ere.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2017ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako Foru Lege proposamena, amatasuna babesteari eta emakume haurdunari laguntzeari buruzkoa.

Proposamen hori 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da untxi-aziendaren sektoreari buruzko lan-mahai bat presako izaerarekin sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da untxi-aziendaren sektoreari buruzko lan-mahai bat presako izaerarekin sor dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, presako izaerarekin lan-

mahai bat sor dezan Nafarroako untxi-aziendaren sektorearekin, bertan aztertze aldera sektoreak dituen arazoak (banaketako bideak hobetzea, berregituraketarako balizko planak, kontsumoa sustatzeko neurriak, neurri fiskalak berrikustea eta hobetzea, untxi-osasuneko programa berrikustea eta hobetzea, lankidetzako hitzarmenak sektoreko entitateekin, Ascuna, Naraba, S. Coop...)”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernu zentralari exigitzen zaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Estatuko Gobernu zentralari exigitzen zaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernu zentralari exigitzen dio:

1. Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraitsi eta behin betikoz itxi dezan.

2. Trantsizio energetikorako plan bat presta dezan, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik segurua eta jasangarria den eredu batean oinarritua.

3. Adieraz dezan Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak Santa María de Garoñako zentral nuklearra berririkitzeko emandako baimenak deusezak direla.

4. Behar diren neurriak har daitezzen, Santa María de Garoñako zentral nuklearra ixtearen eragina jasoko duten eskualdeen ekonomia-egokitzapen eta berrindustrializaziorako Plan bat martxan jartze aldera”.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko; hartan jasoko dira jada ezarritako neurriak eta abian jarri nahi diren beste batzuk. Plan hori hiru hilabeteko gehieneko epean aurkeztuko da Osasun Batzordean, eta honako hauek jasoko ditu, gutxienez ere:

a. Medikamentuen erabilera arrazoizkoa izateko eta farmazia-gastuari mugapean eusteko neurri zehatzak eta neurgarriak, osasun-laguntzaren alderdi eta maila ezberdinetan.

b. Profesionalak prestatzeko eta inplikatzeko tresnak.

c. Erabiltzaileak eta, oro har, herritarrak prestatzeko eta kontzientziazteko tresnak.

d. Ekintza zehatzak, arduradun zehatzekin.

e. Ebaluaziorako adierazle objektiboak eta neurgarriak.

f. Planaren azken ebaluazioa bi urteko epean gutxi gorabehera egiteko konpromisoa –legegintzaldi hau bukatu baino lehen betiere–, eta plan hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztea.

2. Aukera guztiak azter ditzan eta bere esku dauden tresna guztiak erabil ditzan farmazia-industriarekin negoziatu ahal izateko, farmazia-prezioan eragin ahal izateko xedez.

3. Sendagaien Prezioak aztertzen dituen Ministerioarteko Batzordean presentzia iraunkorra eska dezan, gure Foru Komunitatearen autonomia fiskaleko ezaugarriak direla eta?"

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erki-degoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak, 2017ko otsailaren 28an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroan telelana babestu eta erraztu dezan; hartara, 2016tik 2019ra bitarteko enplegu planean gai honi buruzko berariazko atal bat jasoko da, Nafarroan telelana hazten laguntzeko neurriekin.

2. Parte-hartze eta lankidetzaren prozesu bat abiaraz dezan ukitutako eragileekin eta pertsonekin, helburuak eta beharizanak ezartzeko".

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2017ko martxoaren 1ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea hiltzeko prozesuaren erregistro bat sor dezan, ebaluatzekoa Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legean biltzen diren alderdien betetzea. Aipatu erregistroa jadanik sortua den "Osasun arloko Herritartasuna, Aseguramendua eta Bermeak Zerbitzuko Erkidego-osasunaren Behatoki"aren menpekota izanen da.

2. Osasun Departamentuak, sei hilabeteko epean, plan bat aurkeztuko du, aipatu foru legearen artikulua eta xedapenen multzoa betetzeko".

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean eskaintzen haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Javier García Jiménez jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean eskaintzen haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak osatua, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldea honako mozio hau aurkeztu zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, talde politikoen ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako esparru guztietako hirugarren sektoreko erakundeen ordezkariak osatua, zorroan jasotako programak, prestazioak eta zerbitzuak berrikusteko.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko martxoaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza